

Gerrilariak Kigaliren kontrol osoa lortzeko eraso gogorretan ari dira

Zaurituak hainbeste izanik haurrak besterik ezingo ditu salbatu Gurutze Gorriak


Ruandako Fronte Patriotikoko (FPR) gerrilariak gogor ari dira Kigaliko posizioak bonbardatzen. Hiriburuko posizio estrategiko gehienak hartu dituzte tutsiek, eta kontrol osoa lortu nahian ari dira etenik gabe. Gobernuaren aldeko indar hutuek Frantziako tropengan jarri dituzte esperantza guztiak.

NAIROBI

Nazio Batuek Nairobin dituzten iturriek atzo jakinarazi zuten, igande gauaz geroztik erasoek ez dute etenik izan Kigalin. Gerrilak ia osotara dauka inguratuta hiriburua, eta berretsi gabeko zurrumurruek arabera, Kigaliko kontrola lortzeko eraso erabakigarria prestatzen ari dira Fronte Patriotikoko indarrak. Egoerak oraindik gehiago okertu litekeelakoan, Nazio Batuek bertan behera utzi zituzten atzo bi fronteen artean harrapatuta dauden 300 zibilak ebakutzeko aurrikusitako operazio guztiak.

Gurutze Gorriak ere zailtasun handiak izan zituen, baina azkenean lortu zuen bere ospitalean zeuden 45 zaurituak hiriburutik kanpora ateratzea. Talde humanitarioko kideek Kigaliko egoeraz deskribapen izugarria egin zuten: «hainbeste dira zaurituta-koak, haurrak besterik ezingo ditugula salbatu», adierazi zuten etsituta, gainontzekoak hiltzen uztea beste erremediorik ez zutela eta.

Kigalin tutsi eta hutuak buruz buru borrokan ari diren bitartean,



'Turkesa operazioko' soldadu frantziarren jarri dituzte esperantza guztiak indar hutuek.

REUTER

Ruandako hego-mendebaldean lanean jarraitu zuten atzo 'Turkesa operazioko' soldadu frantziarrak. Parisko iturriek atzo jakinarazi zuten, orain arte ez dute erresistentziarik topatu, eta bertako herritarrek esku zabalik hartu dituzte. «Operazioko lehen helburua lortu dugu, mehatxupean zeuden herriak babespean jarri ditugu», azpimarratu zuen atzo Alain Juppe Frantziako Atzerri ministroak.

Ruandako erdi eta iparraldeko herritar hutuak frantziarrak bertara noiz iritsiko zain-zain daude, haiengan jarri baitituzte gerrilari tutsiei aurre egiteko esperantza guztiak. Frantziarrak eu-

ren aliatutzat jotzen dituzte, eta asko dira lubakietan Frantziako banderak eskegi dituzten soldaduak.

Augustin Bizimungo Ruandako Armadako buruzagia Frantziaren eskuhartzearen aldeko agertu zen atzo irrati bidez egindako adierazpenetan, baina Paristik behin eta berriz egin duten moduan, 'Turkesa' izeneko «osotara humanitarioa» den operazioa dela azpimarratu zuen.

NEGOZIAZIOAK HITZARTZEKO SAIOAK

Egunetik egunera okerrera doan egoera honi irtenbidea topatu nahian, Nazio Batuetako buru-

zagiak beste negoziazio itzuli bati ekitekotan dira. Nairobin atzo jakinarazi zuten, egun hauetan saiatuko dira alde bietako buruzagiekin elkarrizketatu eta negoziazio mahaiara biltzen. Ruandako Gobernuaren aldeko tropek itzuli berria euren kontrolpeko lurraldean egitea exigitu dute, azkena NBek Kigalin duen koartelean egin baitzen, FPR gerrilak kontrolpean duen gunean.

Bestalde, Roger Etxegarai Joan Paulo II aita santuaren ordezkari lapurtarra atzo biltzeko zen FPRko ordezkariekin egungo egoerari zein irtenbide eman dakioken aztertze.

PAEk eta Israelek autonomiaren bigarren epea eztabaidatuko dute gaurtik aurrera

JERUSALEM

Israel eta Palestinaren Askapenerako Erakundeko (PAE) ordezkariak gaur hasiko dira Gaza eta Jerikorako autonomiari buruzko bigarren epea eztabaidatzen. Iturri palestinarrek baikor agertu ziren atzo, eta «Israelek deklarazio printzipioa betetzeko nahia erakusten badu» emaitzak balekoak izan daitezkeela azpimarratu zuten.

PAEk Tunisien kaleratutako oharren arabera, Nabil Shaat ordezkari palestinarra eta Dani Tothschild lurralde okupatutarako koordinatzaile israelarra mahai beraren inguruan bil-

duko dira berriz ere negoziazioei eusteko. Buruzagi palestinarrek atzo Tunisien jakinarazi zuten, preso palestinarren etorkizuna izango dute bi ordezkariak eztabaidagai nagusi eta lehena.

Gaza eta Jerikorako Kairon sinatutako akordioaren «konfiantza neurriak» atalaren arabera, akordioa sinatu eta bost astea Gobernu israeldarrek 5.000 preso askatu behar zituzkeen, edo bestela PAEren eskuetan utzi. Tel Aviveko Gobernuak makina presoen askatasuna sinatu duen arren, odol delituak dituzten milaka preso daude oraindik Israelgo kartzeletan.

PAEk Israelek preso palestinar guztien aldeko amnistia agindu dezan lortu nahi du negoziazio hauetan. Hori lortzea lan gaitza izango zaie baina, Israelek ez baitu preso palestinar erradikalak — Hamas taldekoak besteak beste — askatzearen aukera entzun ere egin nahi.

Presoen auzia palestinarrek eta israeldarrek eztabaidatzeke dituzten gaien artean zailena da, baina PAEri biziki garrantzitsua zaio lehenbailehen konpontzea. Buruzagi palestinarrek iritzi diotenez, arazo hau konpontzea behar-beharrezkoa da, beronen arabera lortuko baita distentsioa Gaza eta Jerikon.

GAZAN TENSIO GIROA

Eta oraingoan, ez da halako girorik bizi lurralde autonomoetan. Polizia palestinarrek jakinarazi duenez, hildako kolaborazionisten senitartekoek mendekua hartuko duten beldur dira Gazan. Horregatik Segurtasun indarrek bertako palestinar ugari armatu egin dituzte badaezpada.

1987. urteko abenduaren 9an 'intifada' hasi zenetik 600 lagun palestinarretik gora hil dituzte Israelekin kolaboratzeaz salatuta. Haien hiltzaile asko aske utzi dituzte berriki, eta giroa gori-gorian dela zabaldu dute bertatik Segurtasun Indar palestinarrek.

Forza Italiak beherantz egin du hauteskunde partzialetan

ERROMA

Silvio Berlusconi Forza Italia alderdia sortu zuenetik lehenengo kolpea jaso zuen igandean Italian egin ziren hauteskunde partzialetan. Berlusconi-ren karisma ez zen nahikoa izan 137 udaletako, zazpi probintziatako gobernuak eta Sardiniako Gobernu Erregionalerako 16 kontseilari aukeratzeko deitutako hautesleek Forza Italiarean alde egin zezaten.

Hauteskunde hauetako emaitzak horren lekuko: Sardinian Ezkerreko Alderdi Demokratikoaren (PDS, komunista ohia) inguruan osatutako ezkerreko koalizioak irabazi zuen, botoen % 42,7az. Ezkerreko atzean utzi zuen Forza Italia eta Aliantza Nazionalea neofaxistaren inguruko koalizioa, botoen % 36,59 lortu baitzuten bi hauek batera. Alderdi Demokratikoa ohiko zentristek, emandako botoen % 20,69 lortu zituzten.

Jokoan ziren 20 hiri garrantzitsuetako udalen artean berriz, hamabitzen irabazi zuen ezkerreko Forza Italia eta Aliantza Nazionalek zarpitan, eta zentristek bakarrean. Iparraldean, Lega Nord federalista — Berlusconi-ren aliatua da Gobernuan — bakarka aurkeztu zuen hauteskundeetara, eta alkatezua gehienak kendu zizkion Forza Italiari. Ezkerreko ere lortu zituen zenbait alkatezua iparraldean.

OSO IGAN-EMAITZA ESANGURATSUAK

Igandeko hauteskundeetan hautesleek % 53,4ek besterik ez zuten bozkatu, eta bozketek ez dute zalaparta handiegirik eragin Italian. Hala ere, inguru politikoetan garrantzia handia eman diete emaitza hauei, Berlusconi zerrendaburu ez denean Forza Italiari garaipena lortzea oso zaila zaiola erakusten baitute. Baina gehiagorik erakutsi dute hauteskundeek: Zentroezkerreko garaipena lortu baitu koalizioan bat eginda aurkeztu den lekuetan.

Italian argitaratzen den prentsak atzo iritzi zionez, Forza Italiaren beherakadak bi arrazoi nagusi ditu: bata Berlusconi ez duela telebistaren indarra erabili botoak poltsikoratzeko, eta Forza Italiatik banandu egin dela bestea.